

PRENTSA-OHARRA

1.322.611 bisitariak izan ditu 2017an Museoak

Guggenheim Bilbao Museoak bere historiako urterik onena bizi du bere XX. urteurrenean

Aparta izan da 2017. urtea Guggenheim Bilbao Museoarentzat, XX. urteurrenaren oroitzapenaren urtean izan duen publikoaren babes zabalari esker. Bai erakusketak ikustera bertaratutako bisitari-kopuruari dagokionean, eta bai ospakizun-ekitaldietara gerturatutako herritar andanari erreparatuta, kultura-jardueretako TopARTE programetan publikoak izandako parte-hartze altuaz gain eta urte honetan jasotako aitorpenekin batera, Museoak osasun betean dagoela esan daiteke. Gainera, eta bi hamarkadako ibilbidearen ondoren, proiektu erakargarria izaten jarraitzen duela nabarmen daiteke.

Bisitarietako dagokionean, errekor historikoa hautsi da, Museoak ireki ondorengo lehen urte osoa izan zen 1998ko zenbatekoa gainditzera iritsi den kopuruarekin, kontuan izanik gainera lehen urte horrek hedabideetan izan zuen entzutea ezohikoa izan zela. Museoaren arrakastaren jasangarritasunaren isla da aurtengo datua, hala nola lurraldearen bultzatzaile gisa duen gaitasunaren isla.

Beste alde batetik, 300.000 pertsonak baino gehiagok gozatu zuten *Reflections* zuzeneko ikuskizunaz, non Frank Gehryren eraikina mihise bilakatu zen lau gauetz, Museoaren eta hiriaren historia erakusteko bidaia sensorial batean. Bertan izan zen publikoaz gain, zeinak sare sozialen bitartez ikuskizuna fenomeno biral egin zuten, milioika pertsonak ikusi ahal izan zuten mundu osoan, komunikabide desberdinen bitartez. Amaiera bikaina eman zion ikuskizunak urteurrenaren inguruan antolatutako jarduerak josi duten urteari, non herritarrez gain esparru desberdinetako (artea, kultura, merkataritza, komunikazioa) tokiko eragileek ere parte hartu duten.

Aintzatespenen atalean, besteak beste, Museoak "Bilboko Uriaren Enbaxadore" izendatu zuen Bilboko Udalak iragan abenduan; azaroan "European Cultural Brand of the Year" saria jaso zuen Berlinen, Cultural Brands erakundeak emana, eta "Arteen Cambio 16 Saria" ere jaso zuen. Gainera, irailean, "Estatuko museorik gardenena" bezala izendatu zuten hirugarren urtez segidan, Fundación Compromiso y Transparencia-ren eskutik, eta, ekainean, diseinuaren bi Laus sari jaso zituen, horietako bat XX. urteurreneko webgunearen diseinua zela eta.


Museoko bisitariak

1.322.611 dira 2017an Museoak gerturatu diren bisitariak, —2016arekin alderatuz gero %13ko hazkundearekin. bere aldetik eta bere momentuan, historiako bigarren urte onena izan zena— eta, ondorioz, 153.207 bisitaritan eman da hazkunde hori. Izan ere, orain arte 1998. urtea bazen arrakastatsuen bisitari-kopuruari dagokionez, aurtengo kopuru hori 15.411 bisitaritan gainditu da.


Jatorri geografikoa kontutan hartuz gero, aurreko urteetan bezala mantentzen da atzeritarren portzentaje altua (bisitari osoen %62a); gehienbat Frantziatik (%16), Britainia Handitik (%7), Alemaniatik (%5), Ameriketako Estatu Batuetatik (%5) eta Italiatik datozenak. Euskal Herritik datorren bisitarien portzentajea %21ean kokatzen da, aurreko urtean baino %10 gehiago; Estatuko gainontzeko bisitarien portzentajea, bere aldetik, %17koa da.

Atal honetan nabarmentzekoa da Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako "Lurraldea zabalduz" ekimena, zeinari esker adin nagusiko bizkaitarrek urriko hilabetean Museoaren bisitatze doako gonbidapena jaso zuten. 113.966 bizkaitar izan ziren aukera hori baliatu zutenak.

Bisitarien banaketa jatorri geografikoaren arabera:



Atzerriko bisitarien banaketa jatorri geografikoaren arabera:



Arte-programazioa izan da bisitarietzako Museoak 2017an izan duen erakargarritasun handiena, propio XX. urteurrenerako diseinatua. Hala, 710.995 pertsonak ikusi zuten *Bill Viola: Atzera begirakoa* erakusketa uztaila eta urria artean, eta Museoaren historiako bisitarien bigarren eguneroko batez besteko onena erdietsi zuen, 1998an *Txina: 5.000 urte* erakusketak bakarrik gainditua. Bere aldetik, *Paris, mende amaiera: Signac, Redon, Toulouse-Lautrec eta garaikideak* erakusketak 569.673 bisitari hartu zituen maiatza eta iraila bitartean, eta, *George Baselitz: Heroiak* erakusketak, Bill Violaren erakusketarekin alde berean ospatu denak, 534.221 bisitari izan zituen uztaila eta urria artean. Aipatzekoa da gainera *Espresionismo Abstraktua* erakusketak izandako ikusle-kopuru handia; 356.641 bisitari gerturatu ziren otsaila eta maiatza artean, sasoirako altua suertatzen den kopuru bilduz.

Esparru digitalean, 2.693.178 bisitari erregistratu zituen osotara 2017an guggenheim-bilbao.eus webgunean (iaz baino %18 gehiago), 8.858.365 orrialde ikusi direlarik; sare sozialetan, bere komunitatea eta

eragina handiagotzen jarraitzen du Museoak: 274.000 jarraitzaile dauzka Facebook-en, 355.000 Twitter-en eta 241.000 Instagram-en.

Hezkuntza-programei dagokienez, 257.506 pertsonak parte hartu dute 2017an Museoak eskaintzen dituen jarduera presentzial edo online jardueretan; 1.012.000 pertsona izan dira arte-programazioaren osagarri diren espazio didaktikoak erabili dituztenak eta, 630.000 entzuteko gidak erabili dituztenak. Iragan urteko arrakasta nagusien artean TopARTE nabarmentzen da. Ekimenari esker Museoeko espazioak ireki zaizkie Euskal Herriko kultura-eragile eta -erakundeei, XX. urteurrenaren markoan, diziplina desberdinetako (musika, zinema, bideoa, dantza, *performancea*, antzerkia eta gastronomia) programazio aberatsa eskainiz. 17.450 pertsonak hartu dute parte ekimenean.

Komunitate zabal bat

Museoko **banakako kideei** dagokionean, 27.551 dira Community osatzen dutenak, Museoak 2017an artearen eta kulturaren inguruan sortutako komunitate berrian. Kolektiboen arabera banatuz gero, 16.646 dira Museoaren Lagunak, aurreko urteko datua hobetuz eta Museoak gertuko ingurunean daukan gizarte-babes zabala ziurtatuz; bere aldetik, 8.764 dira Jarraitzaileak, Museoarekin harremana ezartzeko sortu den doako modalitatean, eta 2.141 onuradun izan ditu **Erdu programak** 2017an, langabezia-egoeran dauden pertsonen Museorako doako sarbidea eskaintzen dien programak.

Bere aldetik, eta Guggenheim Bilbao Museoak 2017an izan duen **enpresa-partaidetzari** dagokionean, 124 izan dira Kide Korporatiboak (2016an baino 4 gehiago), erakundearen finantziazioaren funtsezko oinarri direnak eta Community-ren parte ere osatzen dutenak.

Ekonomiaren higiarazlea

Azkenik, eta Guggenheim Bilbao Museoaren funtzionamenduak daukan **inpaktu ekonomikoari dagokionean**, aurreko urteetako datuak gaingaitzen dituzte **2017ko emaitzek**. Honakoak dira:

- Museoaren jarduerari esker Euskadin **sortutako eskariaren** guztizkoa 495,5 milioi eurotako izan da.
- 433,7 milioi eurotako ekarpena egin zaio Barne Produktu Gordinari.
- Kopuru horiei esker, 67,2 milioi euro **gehiagoko diru-sarrera** egin da **Euskal Ogasun Publikoetan**.
- Museoaren jarduerak 9.282 **enplegu** mantentzen lagundu du.

Beste urte batez, Europako kultura-erakundearen artean buru izaten jarraitzen du Museoak **autofinantziazio-mailan**. 2017an %70ekoa izan da datu hori gutxi gorabehera.